

III. ERANSKINA

UPV/EHUⁿ AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunek honako dokumentazio hau bidali beharko dute solicitudes-pif.dgi@ehu.eus helbide elektronikora, pdf formatuan, **2025eko martxoaren 26tik apirilaren 9ra bitarteko epean:**

- a. Matrikula-frogagiria doktorego-programan edo, eskabidean adierazitako modalitateen kasuan, programetan.
- b. Deialdi honen adjudikaziodun gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendari kideek eta adskripzioari dagokion sail, institutu zein ikastegiko zuzendariak ontzat emana.
- c. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- d. Zinpeko aitorpena, non interesatuak adierazten duen inoiz kontrataturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- e. Zereginetan hasi izanaren ziurtagiria.
- f. Kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.
- g. Doktorego programara sarbidea ematen du(t)en titulua(k) (gradua, masterra, lizentziatura).
- h. NAN

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da dirulaguntzari uko egiten zaiola.

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("*Kontratariorako Dokumentuak*" izeneko erlaitza).

Dokumentazioa aurkezteari eta kontratazio prozesuari buruzko kontsultak solicitudes-pif.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidali behar dira.